

Euskal Administrazioetako diru-sarrerak %2,2 eta gastuak %5,8 gutxitu ziren 2012an

Zor bizia 2012ko bukaeran %15,6 gehitu zen; guztira, 8.805 milioi.

Euskal Administrazioen (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udal administrazioak, euren erakunde autonomoei eta udalez gaindiko eta azpiko erakundeekin batera) diru-sarrera sendotuak %2,2 gutxitu ziren 2012an 2011ren aldean eta gastuak %5,8, Eustaten datuen arabera.

Euskal Administrazioen likidazio finkatua. 2011-2012

mila euro	2.011	2.012	Δ%
SARRERAK GUZTIRA	16.419.485	16.059.240	-2,2
Eragiketa Arruntak	14.468.215	13.991.471	-3,3
-Zerga Sarrerak	12.233.479	12.170.830	-0,5
PFEZ	4.416.909	4.371.469	-1,0
Sozietate-zerga	1.201.775	1.176.092	-2,1
BEZ	4.239.282	4.199.390	-0,9
Zerga Bereziak	1.384.206	1.348.381	-2,6
Udal-zergak	667.751	670.890	0,5
Bestelako Zergak	323.556	404.608	25,1
-Bestelako sarrera arruntak	2.234.736	1.820.641	-18,5
Kapital-eragiketak	440.142	511.925	16,3
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	14.908.357	14.503.396	-2,7
Finantza-eragiketak	1.511.128	1.555.844	3,0
GASTUAK GUZTIRA	16.746.373	15.771.212	-5,8
Eragiketa Arruntak	13.771.394	12.964.446	-5,9
Langileria Gastuak	3.417.553	3.232.733	-5,4
Transferentzia Arruntak	4.901.493	4.329.668	-11,7
Bestelako Gastu Arruntak	5.452.348	5.402.045	-0,9
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	2.273.918	2.078.024	-8,6
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	16.045.312	15.042.470	-6,3
Finantza-eragiketak	701.061	728.742	3,9
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	696.821	1.027.025	47,4
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZARIOA	-1.136.955	-539.074	-52,6

Iturria: EUSTAT. Sektoare publikoaren aurrekontuen estatistikak


Eragiketa korranteengatiko diru-sarrerak %3,3 gutxitu ziren, alegia eskubide onartuak 2011n baino 476,7 milioi gutxiago izan ziren; kapital-eragiketengatiko eskubide onartuak 71,8 milioi euro gehitu ziren, %16,3. Guztira, ez-finantzetako eragiketengatiko diru-sarrerak %2,7 gutxitu ziren 2011ren aldean.

Finantza-eragiketengatiko diru-sarrerak %3,0 gehitu ziren; zehazki, finantza-pasiboak %6,7 gehitu ziren, 2011ko 1.390,0 milioietatik 2012ko 1.482,2etara.

Gastuen atalean, eragiketa korranteengatiko obligazio onartuak %5,9 gutxitu ziren 2012an. Pertsonal-gastuak -gastu guztien %20,5- %5,4 gutxitu ziren; transferentzia korranteak -gastu guztien %27,5- %11,7 gutxitu ziren 2011ren aldean. Finantza-gastuak %20,0 gehitu ziren; finantza-pasiboak %5,5. Bi atal hauen batuketara 2011ko gastu guztiaren %4,4tik 2012ko %5,14ra pasa da.

Ondorioz, eragiketa arrunten saldoak %47,4 egin du hobera, 2011ko 696,8 milioietatik 2012ko 1.027ra. Kapital eragiketarak baturik, ez-finantzetako saldoa lortuko dugu; hobera egin du, baina negatiboan da oraindik ere, -1.136,9 milioitik -539,1era.

1. grafikoa. Euskal administrazioen zerga sarreraren banaketa. 2012 urtea (%)



Iturria: EUSTAT. Sektoare publikoaren aurrekontuen estatistikak

BEZ eskubide onartuak 2011ko zerga-atal guztien %34,7tik 2012ko %34,5era pasa ziren, %0,9 gutxiago. Behera egin zuten ere zerga hauen diru-sarrerak: PFEZ, %1,0; Sozietateen Zerga, %2,1; Zerga Bereziak, %2,6. Beste Zergetan, berriz, %25,1eko gehikuntza dugu; izan ere Ondarearekiko Zergaren diru-sarrerak 2011ko 3,7 milioietatik 2012ko 114,1era pasa dira.

Udal-zergak %0,5 gehitu ziren; zerga diru-sarrera guztien %5,5 izaten jarraitzen dute.

Euskal Administrazioetako zor bizia 8.804,9 milioi ziren 2012ko abenduaren 31n, 2011n baino %15,6 gehiago. Izan ere, egindako amortizazioak txikiagoak izan ziren pasibo berriak baino. Pasibo berriak %38,5 gehitu ziren; 2012an eginiko amortizazioak 2011koak baino %24,7 handiagoak izan ziren.

BPGrekiko zorra 2011ko %11,5etik 2012ko %13,6ra gehitu zen.

Euskal Administrazioen datu finkatuak. 2012. urtea

mila euro

	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURL.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	13.991.471	8.788.985	2.573.528	6.842.984	4.284.697
GASTU ARRUNTAK	12.964.446	8.695.411	2.278.424	6.503.361	3.985.973
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	1.027.025	93.574	295.104	339.623	298.724
KAPITAL SARRERAK	511.925	443.543	8.096	71.663	53.939
KAPITAL GASTUAK	2.078.024	1.302.965	108.593	488.911	242.871
AURREKONTU-SALDO EZ- FINANTZIARIOA	-539.074	-765.848	194.607	-77.625	109.792
ZOR BIZIA (Amortizatzeke 31-12-12)	8.804.976	6.088.504	576.019	1.379.950	760.503

Iturria: EUSTAT. Sektoze publikoaren aurrekontuen estatistikak

Euskal Administrazio Publikoetako erakunde kopurua 1.137 zen 2012an (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, tokiko erakundeak eta gehien bat haien mende dauden erakunde autonomo, erakunde eta sozietate publikoak, partzuergoak, fundazioak, irabazi asmorik gabeko erakundeak, unibertsitatea). Langile erregistratuak, 2012ko abenduaren 31n, 124.861 ziren, 2011n baino %0,2 gutxiago.

Emakume eta gizonen banaketa, aurreko urteetan bezalaxe: %60,7 emakumeak, %39,3 gizonak. %68,3 langile finkoak ziren.

Administrazio publikoetako langileei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ohar metodologikora jo:
http://es.eustat.es/document/datos/Nota_met_personal_2011_e.pdf

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

**EUSKAL AEKO SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKEI BURUZKO PRENTSA-OHAR
GEHIAGO**

EUSKAL AEKO SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKEN GAINEKO DATU-BANKUA